

COMPLIANCE POLITIKA GSR



Gestión de Servicios Residencial, S.Coop. (aurrerantzean «**GSR**») erakundearen helburua da adinekoentzako, osasun mentaleko arazoak dituztenentzako eta desgaitasun fisikoa edo psikikoa dutenentzako arreta sozio-sanitarioko zerbitzuen kudeaketa integrala egitea, hainbat autonomia-erkidegotan gaude.

GSR Mondragón Korporazioaren bultzadarekin sortu zen, Kooperatiba Sozietatearen forma juridikoa hartuz, non GSR osatzen dugun Pertsonak gure lan profesionalaren protagonistak garen.

GSRk portaera etikoaren kulturaren oinarritutako lan egiteko modu bat du, eta edozein portaera desgoki modu aktiboan prebenitzea eta saihestea ahalbidetzen duten balioetan oinarritzen da.

Gure Delituen Prebentziorako Sistemak edo Compliance Penaleko Sistemak (aurrerantzean, **Compliance Sistema**) funtsezko kontzeptu gisa jasotzen du GSR osatzen dugun pertsona guztiok gure jarduerak gauzatzea indarrean dagoen legeria betetzeko konpromisoarekin, aipamen berezia eginez arlo penalari, baita gure barne-araudian jasotako printzipio etikoei ere, gure sortze-balioekin (Eskuzabaltasuna, apaltasuna eta Errespetua), berrikuntza-kulturarekin, konpromiso sozialarekin, ingurumenarekin, genero-berdintasunarekin eta gardentasunarekin bat etorritik, eta asistentziaren kalitatea hobetzeko etengabeko ahalegina eginez.

Compliance Penaleko Politika honek (aurrerantzean, «Politika») GSRren Compliance Sistemaren helburuak eta jarduteko printzipio orokorrak ezartzen eta jakinarazten ditu.

1.Helburuak:

GSRren Compliance Sistemaren helburu nagusiak hauek dira:

a) Enpresa-etikaren kultura positiboa eta eraikitzailea sustatzea GSRn, enpresa osatzen dugun pertsona guztiak inplikaturako dituen, zero tolerantzia printzipioan oinarrituta, legez kontrako ekintzak, arauak ez betetzea edo edozein ustelkeria, abusu edo diskriminazioaren aurrean.

b) Arlo honetako legezko betebeharrak eta enpresa-eginbideen jarraibideak betetzea, Europar Batasuneko eta estatuko araudiari eta Euskadiko kooperatibei buruzko legeriari erreferentzia berezia eginez.

c) **Enpresan delituak eta arauak ez betetzea prebenitzea**, legezko erantzukizunak (penalak, zibilak, etab.) eta hirugarrenen zehapenak, isunak eta erreklamazioak saihestuz.

d) **GSRren kapital entzutetsua handitzea**, arriskuak saihestuz eta balioa bermatuz.

e) **Gure “intereseko hirugarrenekin” harremana sendotzea**: gure zerbitzuak erabiltzen dituzten pertsona eta familiekin, gai horretan eskumena duten administrazio publikoekin, hornitzaileekin, proiektuetako erakunde edo laguntzaileekin eta abarrekin.

f) Merkatuaren **eskakizunei aurea hartzea**.

Beraz, Compliance Sistemak GSRren balioa bermatzen eta handitzen laguntzen du, baita enpresa balizko erantzukizunen aurrean babestu ere.

2. Aplikazio-eremua

Politika horrek GSRko langile guztiengan du eragina eta aplikagarria da, salbuespenik gabe haien kargua, erantzukizuna, okupazioa edo kokapena edozein dela ere, aplikatu beharreko zigor-araudian zehaztutako baldintzetan.

Politika honen ondorioetarako, GSRko langile gisa hartzen dira, besteak beste, kooperatibako bazkide edo langile direnak, erakundeetako eta prestakuntza-zentroetako pertsonak, baldin eta enpresaren jardueretan parte hartzen badute, honako formatu hauetan: «praktikak», «ikasketa proiektuak», «prestakuntza duala» eta GSRren laguntzaile gisa jardun dezaketen beste pertsona batzuk, betiere enpresaren baliabideak eskura badituzte, lan-harremanik izan gabe.

3. Jarduteko printzipio orokorrak

GSRren Compliance Sistemaren helburuak lortzeko, Jarduteko Printzipio Orokor hauek ezartzen dira:

a) **Aplikatzekoa den legeria derrigorrez betetzea**, barne-araudia eta GSRI beren jardueraren arabera aplikatu dakizkiokeen beste araudi batzuk nahitaez betetzea (lizitazio-oinarriak, lankidetzak-hitzarmenak, administrazioekiko akordioak, etab.).

b) **Arriskuak identifikatzea eta ebaluatzea**. GSRk bere jardueraren dela-eta dauden arriskuak identifikatu eta ebaluatzen ditu, eta arrisku horiek arintzeko edo ezabatzeko beharrezko neurriak ezartzen ditu.

c) **Prozedura egokiak definitzea eta ezartzea**. GSRk delituak eta arauak ez betetzeak prebenitzeko politikak, prozedurak eta prozesuak ditu, bere jarduerari eta egiturari egokituak.

d) **Compliance sistema eguneratzea**. Arriskuen eta prozeduren jarraipena, analisia eta etengabeko eguneratzea.

e) **Prestakuntza.** GSRko langileek prestakuntza nahikoa jasotzen dute enpresaren Compliance Sistemaren helburuak eta funtzionamendua ezagutzeko.

f) **Informatzeko betebeharra.** Legez kontrako jokabideei edo arauak ez betetzeari buruzko informazioa emateko betebeharra: xede horrekin, kanal etiko bat ezartzen da, www.gsr.coop webgunearen bidez eskura daitekeena, lehen instantzian kanpoko enpresa batek kudeatzen duena eta konfidentzialtasuna erabat bermatzen duena.

g) **Laguntzeko betebeharra.** GSRko langile guztiek lagundu behar dute ustezko arau-hausteeekin lotutako gertaerak argitzeko egin behar diren kudeaketa edo ikerketetan.

h) **Baliabidez hornitzea.** GSRk bere Compliance Sistemaren funtzionamendu eraginkorra eta etengabeko hobekuntza lortzeko behar beste baliabide eskainiko ditu, gainbegiratze, zaintza- eta kontrol-betebeharrei erreferentzia berezia eginez.

i) **Kontrol-organoa.** GSRk bere Compliance Sistema betetzen dela ikuskatzeko barne-organo bat du.

j) **Ez-betetzearen ondorioak.** GSRk diziplina-araubidea aplikatuko du, eta zuzenbidean dagozkion ekintzak hartuko ditu, zigor-arloko ez-betetzeen aurrean nahiz aplikatzekoak diren barneko edo legezko araudien ez-betetzeen aurrean.

k) **Komunikazioa.** Politika hori eta enpresaren kanal etikoa interesdun guztientzat egongo dira eskuragarri, webgune korporatiboaren bidez: www.gsr.coop. Halaber, komunikazio-ekintzak egingo dira, behar bezala ulertzeko eta praktikan jartzeko.

4. Eguneratzea eta berrikustea

Politika hau aldian-aldian berrikusi eta eguneratuko da, arau-aldaketetara eta GSRren jardueretan sor daitezkeen aldaketetara egokitzeko, eta une oro bermatuko da politika hori benetan ezarriko dela.

Zuzendari nagusia

Mariaje Zabaleta



Kontseilu Errektoreko lehendakaria

Klaudia Luquita

